



3. sektorea

Hirugarren Sektoraren Sozialaren  
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social

## TAILERRA

# KOMUNITATE ESPERIENTZIAK: HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA ETA HARATAGO

### Data eta tokia:

Tailerra martxoak 31an izango da, Bilboko San Frantzisko Udaltegiako areto nagusian, 10etatik 13etara.

### Planteamendua:

Behatokian gure buruari galdetzen diogu komunitatea prozesu kolektiboetarako aukera eta eremua bezala. Egungo testuinguruan, dauzkagun erronka eta arazoen aurrean, erantzun komunitarioek garrantzi berezia hartzen ari dira. Gero eta argiago dirudi zeharkatzen dugun krisialdi ekosozialaren aurrean erantzunak komunitarioak izan behar direla. Baita instituzionalak eta sistemikoak, baina halabeharrez komunitarioak. Baina ba dakigu komunitatean zer egiten den? Berez martxan jartzen diren esperientzia, prozesu eta ekimenak ezagutzen ditugu, erreakzioaz haraindi erantzunera doazenak? Behatokian uste dugu komunitate prozesuetatik ikasteko asko daukagula, eta tailer honetan tokia zabaldu nahi diegu bai komunitateari buruzko hausnarketari, bai eta esperientzia batzuei, anitzak bere jatorri, era, kokapen eta arduran, aukera honi bidea zabaltzen diotelarik. Honela haien arteko elementu komunak aurki ditzakegu, beste erakunde batzuek haiengandik ikasi dezaten. Gurekin egongo dira honako esperientziak: pertsona errefuxiatuei babesa ematen dieten proiektuak, zaintza kate globalari buruzko sensibilizazio eta laguntza, elkarlaguntza sareak, kalean dauden gazteei harrera, tokiko komunikazioa bazterkerian dauden gazteekin, astialdi sortzailea, baserri aldeko belaunaldiarteko elkarlaguntza, denbora bankuak eta komunitate kultura. Hauetan martxan jarri dira proposamen sortzaileak, laguntza eta konpromezu prozesuak, ekintza eta eraldaketa gogoia duten pertsona eta sareen sentikortasun eta kontzientziaren eskutik.

Tokiko komunitatea, auzo komunitatea, ingurune jakin bateko pertsona, harreman eta prozesuen sarea, bertako biztanleen bizitza onerako funtsezkoa da. Eta lehen jakin izan duguna eta gizarte atomizatuan begi bistatik galtzen duguna gogoratu nahi dugu: nola pentsatu, diseinatu eta bizi komunitatean. Irudi biologiko batekin esanda, basoaren parte garela jakin eta baso bezala pentsatu. Azkeneko ikerketa batean<sup>1</sup>, D. Haskell-ek aipatzen zuen zuhaitzak ez direla banakako isolatuak, baizik eta komunitate baten partaide, izaki bizidunen komunitatea, gizaki, intsektu, hegazti eta bakteriekin batera. Bizitza sare haragiztatua da, non elkarlaguntza eta gatazkaren artean prozesuak konpontzen eta negoziatzen diren, eta kidetasun etika batera zuzentzen gaituelarik. *“Zuhaitz bat bizitza amankomuna da, elkarriketa aniztasuna den izakia”*. Tailer honetan *zuhaitz* jakin batzuetan jarriko dugu arreta, haien bizitasun eta hazkuntzagatik ardura honetan argia ematen digutelarik.

---

<sup>1</sup> D. Haskell, *Las canciones de los árboles*, Noema 2021



3. sektoreakadi

Hirugarren Sektor Sozialaren  
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del  
Tercer Sector Social

## Helburua:

Tailer honetan helburu apala baina garrantzitsua dugu: komunitatean jatorria eta eragina duten eta martxan dauden esperientzia batzuk aditzera ematea, elkarrizketan sortzen diren ikasketak elkar banatzea, bertatik elikatu haien eragina beste eremu eta inguruneetara zabaltzeko (haien haziak barreiatzeko), honela basoaren sorrera baimenduz. D. Haskellen ideia jarraitzen dugu: zuhaitz ezberdinak toki ezberdinetan, elkarrengandik urrun, haien artean komunikazio bat mantentzen dute, izaki bizidunen komunitate berdinen parte. Esperientzia ezberdinen arteko komunikazioa zabaltzen dugu, denak basoaren parte direlakoan.

## PROGRAMA

10:00. Harrera eta aurkezpena

10:10. Auzo komunitatea: basoa zerumuga. **Luismi Porto (Gizarte Hezitzailea)**

10:50. Komunitate esperientziak: zuhaitzak hazten (aldibereko mahaia)

- Bidez Bide. **Soraya Ronquillo**
- San Frantzisko elkarlaguntza sarea. **Carlos Askunze**
- Locura Feliz komunitate irratia. **Juan Pérez (Bizitegi)**
- Arabako baserri inguruko emakumeen sarea. **Edurne Ibarrola eta Marian Urrechu**
- Tarrasta gazte-gunea. **Eneko Celáa**
- Basoa proiektua. **Iosu Murgia**
- Atxuri Harrera. **Carolina Agudelo eta beste pertsona bat**
- Gasteizko denbora bankua. **Daniel Lamela eta beste pertsona bat**
- ASTRA. **Hibai Agorria**

11:35. Atsedena

11:50. Tailerraren bigarren txanda

12:20. Amankomunean jartzea: haziak batzen

12:55. Amaiera eta lunch